

JUBILATUEN KURUTZBIDEA

1. Jesus maitea, banatorkizu
bihotz zabalik aurrera,
Kalbarioko Kurutzbidean
Zurekin bat egitera.
Maixu zintzoa, urten eidazu
Zuk ere errukiz bidera,
Zuk lagunduta, egin dagidan
Zuk eginaren antzera.
2. Jainkoa gizon egin zinan ta
ez al da nahiko berori?
Pobre ta gaixo lagun hartuta,
zenbat mesede askori!
Danen ordainez hau entzun behar:
"Bota gurutzerera Hori!"
Nire bizitzan eta inguruan
zeinbat holako histori!
3. Kurutze astun bat bizkarrean ta
astunagoa barruan,
itxura danez, gaiztoagorik
ez zan izango munduan...
Baina gaur, Jesus, hemen naukazu
minez ni zure lekuan;
hau niretzako astunegi da,
zagoz Zeu nire onduan.
4. Kurutzepean haustuta zagoz
eta jagi ezinean,
agiri danez, gizon koxkor bat
nigaitik egin zinean.
Jesus laztana, begira niri
egoera bardinean,
Zu ikusteak bizkortzen nau gaur
nire oinaze minean.
5. Semea holan ikusi behar:
jausi-jagiika tatarrez,
bere atzetik zoaz Zu, Ama
samintasunez negarrez.
Beste seme bat hemen naukazu
Zuri "ama" deadarrez,
bakarrik ezin; lagundu, Ama,
zure grazi zerutarrez
7. Odol-izerdi eta hauts-artean
Jesus, hori da itxura!
Arpegi hori txukuntzea da
Beronikaren ardura.
Tximur ta tximaz, ai ta oi baten
etortzen jat negargura,
eskerrak, lagun onak datortaz
Beronikaren modura.
8. Hau biraoka, hori burlazharar
ez dozu inor lagunik,
lurretik gora jagiten, Jesus,
nork lagunduko deutzunik.
Nik ere ez daukat bakardadean
poz ta bakezko egunik,
Zu barik ezin eroan, Jesus,
honen kurutze astunik.
9. "Jerusalengo ama-alabok,
ez niri egin negarrik,
zuon etxean dozue nahiko
gauza negargarri txarrik".
Ez duzu, Jauna, zure ondoan
hileta soinu beharrik,
konpromesuan sartzen dana bai
onartzen dozu bakarrik.
10. Hainbeste neke hartuta gero,
hau al da irabazia!
Gogo ta bihotz zehatz etenda,
beheraino zagoz jausia.
Dana emon nahi: gogo ta bihotz
eta azken arnasia;
ni ere osorik Zuretzat nadin
Jesus, eidazu grazia!
11. Goitik beheraino bilutsik zagoz
danen aurrean zer lotsa!
Egarriz hiltzen zagozala Zuri
eskeini ozpin mingotsa...
Zuri begira isilduten jat
nire barruko aihotsa,
Zu isilik ta ni aienaka?
Hau bai dala gauza motza!

12. Hemen naukazu Zuri begira
gaur kurutzaren oinetan,
nire kurutzan nagoalarik
Zugaz oifiaze minetan.
Zuri begira bizi nahi dot nik
nire ordu saminetan,
Ama, lagundu ondo urtetzen
kurutze-esaminetan.

13. Lapur onari zerua eta
beste danei parkamena,
eta Aitaren esku onetan
emoten dozu azkena.
Eskerrik asko, orain ta beti
O Salbatzaile onena!
Gora Kurutze Bedeinkatua
gora Jesusen Izena!.

14. Hartu ezazu, Ama, besotan
Zure Seme Jesus zana,
baina ez ahaztu Zuretzat ni ere
beste seme bat naizana.
Bete deazagun Jesusek bioi
azken orduan esana:
"Ama, hor duzu zure semea,
seme, horra zure Ama".

15. Lurpean sartu zaituzte, Jesus,
zeru-lurren Jaun ta Jabe,
Zuk esan eta egindakoak
hau merezi izan dabe...
Kaliza edan duzu osorik
mikaitzena izanda ere
ez bizitzan ta ez heriotzan
ez nago lagunik gabe.

16. Sekula santan ez da gertatu
holakorik lur gainean,
"Hilen artetik biztu zarala
hirugarren egunean".
Gurutzbidean aurrera nator
zure bide zuzenean,
orain gurutzan Zurekin eta
gero ere bai azkenean.

17. Jarraitu diot, Aita Jainkoa,
Jesus zure Semeari,
hemen naukazu orain Beragaz
batera ni ere opari.

Azkenenarte zintzo ta zuzen
jarrai nahi deutsot Berari,
zure ondoan lortu dagidan
zeruan betiko sari.

A. Martzel